

# MENDEBALDEKO SAHARAKO

# ERREKURTSO NATURALEN

# LAPURRETA GELDI DEZAZUN

# STOP MERCADONA



## ZERGATIK MERCADONA?

**Mercadonak** aukera zabala eskaintzen du. Beste produktuen artean arraina eta itsaski freskoa eta izoztua saltzen ditu.

Ofizialki, enpresak politika bat jarraitzen duela dio **arrantza jasangarriko produktuaren etiketatze ona**, legez kanpoko arrantza saihestea, gutxieneko neurriak betetzea, tokiko arrantza laguntzea... lortu nahi duena. **Baina, bere hornitzaile batzuk Espainiako enpresa txikiak dira olagarroa Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetako Dajlan lortzen dutenak.** Zehazki, Profand eta Frigoríficos Camariñas bezalako hornitzaileak.

**Olagarro sahararrak itsasontziz edo errepedez bidaiatzen du** Agadirreraino eta Marokoko beste herri batzuetara, jarraipena zailtzeko eta, handik, **itsasontzietan Espainiarantz** irtetzeko asmoz. Esportatu ondoren, **Marokoko portu batean arrantzatu balute bezala erregistratu egiten da.**

**Prozesu bera jarraitzen dute beste espezie batzuekin, adibidez, sardina edo berdelarekin.** Arraste arrantza inbaditzaile baten bidez itsas biodibertsitateari kalteak eragiten dizkiote eta oso modu negatiboan eragiten diote ingurumenari.

## ZER GERTATZEN DA MENDEBALDEKO SAHARAN?

**Mendebaldeko Sahara baliabide natural ugariko lurraldea da, eta okupaziopean dago 1976tik.** Munduko fosfato-erreserba nagusietako batzuk ditu, bertako urek aberastasun handia dute arrantza-bankuetan, eta haren kokapenak harea-kopuru handiak eta turismoaren eta energia berriztagarrien garapenerako potentzial handia eskaintzen ditu.

**Okupaziotik, Marokok Saharako baliabideen ustiapena eta arpilatzea handitu eta areagotu du, enpresa multinazionalak erakarriz eta beste herrialde batzuekin** eta Europar Batasunarekin, esaterako, eskualdeekin merkataritza-akordioak garatuz, legezketasun faltsuarekin eta saharar herriaren baimenik gabe.

Saharar herria, berriz, **Aljeriako basamortuko errefuxiatu-esparruetan bizitzera behartuta dago, edo lurralde okupatuetan** non indar marokoarren eraso, errepresio eta eskubideen urraketak jasan behar dituen, lana aurkitzeko garaian diskriminazioaz gain.

[WWW.WESTERNSAHARAISNOTFORSALE.ORG](http://WWW.WESTERNSAHARAISNOTFORSALE.ORG)

# MEDEBALDEKO SAHARAKO ERREKURTSO NATURALEN LAPURRETA GELDI DEZAZUN STOP MERCADONA



## ZER JARDUERA DU MERKATUTONAK? MEDEBALDEKO SAHARA OKUPATUAN?

Mercadonaren hornitzaileetako batzuk Saharako lurralde okupatueta Dajlako olagarroa lortzen duten Espainiako enpresak dira. Zehazki, Profand eta Frigoríficos Camariñas hornitzaileen bidez.

Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta legez kanpo harrapatutako olagarroa Mercadonak banatzen du bere 1654 supermerkatuetan; horietatik 1637 Espainian daude eta 14 Portugalen. Olagarroa Dajlako kostaldean (LLOO) harrapatzen da itsasontzi handiekin, eta errepidez lekualdatzen da Marokora, nahiz eta harrapaketak Mendebaldeko Saharako uretan arrantzatu izan. Esportatu ondoren, Marokoko portu batean arrantzatu izan balute bezala erregistratzen da.

2009an, gizarte zibileko hainbat erakundek salatu zuten Mercadonak Jealsa kontserba enpresa espainiarraren (Rianxeira y Friegues markaren jabea) Mendebaldeko Saharako itsas produktu espoliatuak eskaintzen zituela, Hacendado marka zurirako egiten zituenak. Jealsak Aaiungo bere ekoizpen plantak Coruñaiko instalazio batzuetara deslokalizatzea erabaki zuen.

Mercadonaren Profand hornitzaileak Dajlan prozesatzeko lantegi bat daukan Sofinas enpresa marokorren akzio gehienak erosi zituen 2017 hasieran.

## ZERGATIK MERKATURATZEN DA LAPURTUTAKO PRODUKTU SAHARARREKIN?

Nazioarteko legalitateak Marokok Saharako baliabide naturalen ustiapena legez kanpoko delatzen badu ere, Marokok Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa finantzatzen jarraitzen du espolioazioaren bidez. Era berean, enpresa transnazional ugari aberasten dira dute egoera horrekin, Mendebaldeko Saharako gatazka luzatzen eta okupazioa iraunarazten lagunduz.

Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen lapurreta sahararren eskubide kultural, ekonomiko eta politikoak urratzen dituen merkatu batean egiten da, eta, aldi berean, Marokok lurraldea legez kanpo okupatzea sustatzen du. Gainera, bere baliabideen aberastasunak eta ustiapenaren eta esportazioaren onurek ez dute saharar herriaren gain eraginik.

## ZER ERAGIN DU MERCADONAREN JARDUERAK GIZA ESKUBIDEETAN?

Bere jarduerarekin, Mercadona konplize egiten da Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioan; izan ere, nahiz eta enpresak ofizialki esan arrantza jasangarriko politika bat jarraitzen duela, eta horren helburua dela produktuaren etiketa egokia betetzea, legez kanpoko arrantza saihestea, gutxieneko neurriak betetzea eta tokiko arrantzari laguntzea, Dajlan (LLOO) ateratzen duten enpresak ditu olagarro-hornitzaileen artean. Okupatueta Mendebaldeko Saharan egiten duen jarduerarekin Saharako herriak bere baliabide naturalen kudeaketari buruz galdetzeko duen eskubidea urratzen du.